Uraren sekretuak



Ikastetxeentzako magia ikuskizun hezitzailea, honako hauek lantzen dituena:

AURREZTEAREN GARRANTZIA / KUTSADURA
URAREN ZIKLOA / ETA ASKO GEHIAGO...
Koaderno didaktikoak barne.

2025-2026 BERRITUA



MAGIA SARI NAZIONALA 2025

3. Saria Magia Orokorra kategorian
XL. Kongresu Magiko Nazionala (Terrassa)

WWW.MAGOHODEIMAGOA.COM

MAGO HODEI MAGOA

FAETEDA

Ikasle eta irakasleek uraren zikloaren teoria, bere ezaugarriak eta eguneroko erabilpenak ezagutzen ditugu, baina, zergatik ez gaian sakondu? Zergatik ez gara gure **zentzumenen bidez** bere magian eta ezaugarrien **esperimentazioan murgiltzen**? Ilusioarekin eta ikasteko gogoekin dena da posible.

Ura, gure bizitzaren elementu garrantzitsuenetariko bat, jaiotzen garenetik erabiltzen dugu, baina... bere sekretu guztiak ezagutzen ditugu?

Ongi etorriak Hodei magoaren (2025eko Magia Sari Nazionala) 100 eskola baino gehiago bisitatu dituen ikuskizun hezigarrira, non modu entretenigarriz, erakusten, dibertitzen eta gure planetako funtsezko elementua zein den gogorarazten duen magiaren bitartez, ikasiko dugun.

Hurrengo orrialdeetan jardueran lantzen den eduki guztia ezagutuko duzu, baita magia hezkuntza-tresna bihurtzeko gure modua ere.



ZER LANTZEN DA?

Ekintzaren helburu nagusia ikasleriak **erantzukizun-kontzientzia** hartzea eta **uraren babesaren garrantzia** ulertzea da, ura baliabide natural agorgarri, eta era berean, bizitzarako ezinbestekoa bezala.

Hori dela eta, **esperimentazioaren eta magiaren bitartez**, ikasleek uraren ezaugarriak eta erabilpenak ezagutzen dituzte, bere arazoak aztertzen dituzte eta erabilera arduratsua egiteko hausnartzen dute. Gainera, magiari esker jende aurrean hitz egitea, errespetua, berdintasuna, partekatzea eta abar lantzen da.

Ikuskizunaren ardatz nagusiak hurrengoak dira:

- Uraren zikloa eta bere egoera desberdinak.
- Ura zergatik ez den xahutu behar, modu justifikatu batez, erakustea.
- Ura edatearen garrantzia.
- Gure bizitzan ura erabiltzen dugun egoera guztiez kontzientziatzea.
- Uraren errespetua animali eta landare askoren ekosistemaren parte bezala.
- Zergatik ez den kutsatu behar ulertaraztea.



MAGIA HEZKUNTZA-BALIABIDE GISA

Magia egitea eta haren bidez irakastea **ikasgelako irakaskuntza osatzen duen** heziketa-modu sortzaile eta berritzailea da.

Esperimentazioa, pertzeptzioa eta arrazoiketa jarduera hezigarri honen gakoak dira, zeina magoaren eta ikasleen arteko **etengabeko interakzioarekin** indartuta dago.

Denek parte hartzen dute ikuskizunean, bai modu zuzenean, magia-jokoetan lagunduz, bai zeharkako moduan ere, magoak sortzen dituen zalantzei erantzuten edo egiten dituen okerrak zuzentzen.

Magiaren bitartez ikasleek esperientzia denbora gehiagoz gogoratu eta honi buruz hausnartu ahal izatea bilatzen dugu, **pentsamendu kritikoaren garapena** lagunduz.

Gainera, esperientziaren amaieran, ikuskizunean ikasitako edukiak biltzen dituen **koaderno hezigarri** bat jasotzen dute. Horri esker, esperientziaren oroigarri bat eraman ahal izango dute eta, aurrerago klasean, ikuskizunean gertatutakoa gogoratuz, edukiak berriro lantzeko tresna baliotsua izango dute.



ZEIN EZAUGARRI DITU?

Ikuskizuna burutzeko **gu zure eskolara goaz** eta behar den guztia eramaten dugu.

Jarduera egingo den tokian eszenografia, 1000W-ko soinu-ekipoa eta behar den material guztia muntatzen dugu. **Den-dena barne dago.**

Zentroan erabilgarri dagoen **edozein espaziorekin moldatzen gara**: psikomotrizitate-gelak, ekitaldi aretoak, gimnasioak, pabiloiak, etab.

Ikasleak ikastetxetik kanpoko leku batera eraman beharrik ez dago, ezta jarduera gauzatzeko autobus bat alokatu beharrik ere.

50 minutuko iraupena izanik, saio baten barruan programatzea posible da.

Ikuskizuna **euskaraz, gaztelaniaz edo elebitan** eskuragarri dago.

Ikuskizuna **Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat** prestatuta dago. Saio bakarrean guztiei egiteko aukera dago, edo adin-tarteka banatuta saio gehiago egiteko. Kasu horretan, edukia adin-tarte horretara egokitzen da, bertaratutakoen adinari hobeto heltzeko.





LABURTZEN...

ZENTRORAKO ONURAK

- Ingurumen kontzientzia eta uraren zaintza **sustatzen** ditu.
- Aurretik ikasgelan landu izan daitezkeen Zientzien edukiak **indartzen** ditu, baina gai horiek aurrez landu gabe ere gozatu eta ulertu daiteke.
- Ikasleek magiari eta parte-hartzeari esker, dibertitzen diren bitartean **ikasten** dute, mezu indartsuak jasoz.
- Adin eta maila guztietara **egokitutako jarduera**, saio bakarrean guztiek gozatzeko aukera ematen duena, edo hainbat saioetan banatuta, ikasle guztiei heltzeko eta kostuak murrizteko moduan.
- Uraren Nazioarteko Eguna, Zientziaren Astea, Jardunaldi Kulturalak, proiektuaren amaiera eta askoz gehiago **ospatzeko egokia**.
- **Zentroaren irudiari ekarpena**, ingurumen-hezkuntzan duen konpromisoa indartuz, baita tresna pedagogiko berrien erabileran ere.

ZENTRORAKO KONFIANTZA-BERMEA

- **Hamarkada bat baino gehiagoko ibilbidea** duen konpainia, ilusionismo eta arte eszenikoen sektorean aitortua.
- **Sariak eta iritziak**, bere proiektuen kalitatea bermatzen dutenak, baita nazio mailako ziklo, jaialdi eta programazio ospetsuetan parte-hartzea ere.
- **Hurbileko laguntza**: kontratazio-prozesu osoan zehar aholkularitza osoa eskaintzen dugu, beti aukerarik egokiena gomendatuz eta zentro bakoitzaren behar berezietara egokituz.
- **Serietatea eta zehaztasuna**, baimen guztiekin, Erantzukizun Zibilerako Aseguruarekin, Lan Arriskuen Prebentzioarekin, Delitu Sexualen Ziurtagiri Negatiboarekin...





IKUSKIZUNA BIDEOAN

IKUSI WEBGUNEA

IKUSKIZUNA ARGAZKIETAN














KOADERNO HEZIGARRIA









JADA HARRITU DIRENAK...

Egia esan, hasieran zalantzak izan genituen, magia ikuskizuna izanda ez genekigun haur tixkientzako ikuskizuna izango zen. Azkenean bikaina izan zen, ikasleak liluratuta bukatu zuten eta ez genuen arazorik izan.
Teresa - Hirugarren zikloko koordinatzailea

Haur Hezkuntzako bi eskoletako 250 ikasle ginen, primeran pasa genuen. Iraun zuen 50 minututan ikasleek ez zuten ikuskizunetik begirada kendu, Hodeik denbora guztian galderekin eta bromekin partaide egiten baititu. Bi aste geroago txorrota irekia uzten genuenean oraindik aurpegiratu egiten ziguten.
Luis Javier - Ikastetxeko zuzendaria.

Atsegina da jarduera desberdina ikustea. Lantzen diren edukiak zabalak dira, gure Haur Hezkuntzako ikasleak lantzen dutenetik seigarren mailakoak egiten duteraino iristen dira. Gainera, magia oso originala da, ez ditut jokuak lehenago ikusi eta bikainak dira erakusten saiatzen garen guztia uler dezaten.
Marisa - Ikastetxeko zuzendaria.

Hiru urte daramagu eguberri aurreko azken egunerako magoak ekartzen. Aurten eskolarekin hitz egin genuen ekintza hau egiteko eta irakasleak klasean azaldu zituzten ikuskizunean landuko ziren gaiak. Ikasleentzako ez zen batere aspergarria izan, guztiz alderantziz. Beraien sentsazioa mago normal baten aurrean egotearena zen, baina gainera gauzak ikasten ari ziren. Gainera, ematen dizkieten koadernoak irudiz hornituak daude entretenigarriak izan dadin.
Mario - Guraso elkarteko lehendakaria.

ODEI DOMINGO

MAGOAREN ATZEAN DAGOEN PERTSONA

Espainiako Ilusionismo Elkarteko kide 2011tik, **2014an bere konpainia propioa sortzen du**, ikuskizun propioak ekoizteko eta banatzeko asmoarekin eta zeinari esker orain arte estreinatutako hamairu ekoizpenekin 14 probintzietako plaza eta antzokiak bisitatu ahal izan ditu.

Bere proposamen propioetaz aparte, konpainia desberdinekin **korpodukzio eta kolaborazioak** egin izan ditu, hainbat ikuskizun familiarretako protagonista izanda, baita musikalak ere non, magia egiteaz gainera, abestu, dantzatu eta interpretatzen zuen.

Konpainia artistiko, ekoizpen eta ekitaldi desberdinentzako **aholkulari magikoa** da. Honetaz gain; telebista kate, udaletxe, erakunde eta maila nazionaleko enpresentzako proposamenak pertsonalizatu ditu. Bere **enpresentzako ideia pertsonalizatuak** Frantzian, Portugalen eta Alemanian burutu dira; Marta Nietok edo Jose Coronadok protagonista dituzten zinemako filmetan ikusi dira eta 5000 pertsona aurrean pabiloietan antzeztu dira.

Bere ikuskizunak Madrilgo Antzoki Sarean, Aragoin, Gaztela Leonen, Nafarroan, Euskadin, Asturiasen edo Errioxan antzeztu dira. Coca-Cola, Port Aventura, Sercotel, Atresmedia, Tornasolmedia edo Nespresso bezalako enpresentzako lan egin du.

NAFARROA ESZENAko (nafarroako ekoizpen eszenikoko enpresen elkarteko) **kide-sortzailea eta lehendakaria** da eta FAETEDAko (antzerki eta dantza enpresen elkartetako federazio nazioanleko) **asanbladako kidea** da.

2025eko uztailan, Terrassan ospatutako XL. Magia Kongresu Nazionalean, 3. Magia Sari Nazionala jaso zuen (Magia Orokorra kategorian).

TELEBISTA

Ikusi webgunea sarean

IRRATIA

Ikusi webgunea sarean

PRENTSA

Ikusi webgunea sarean

Zure ikasleak harritzeko prest.
Magia hasi dadila!

MAGO HODEI MAGOA

www.magohodeimagoa.com

info@magohodeimagoa.com
(+34) 646 236 649

MAGIA SARI NAZIONALA 2025

3. Saria Magia Orokorra kategorian
XL. Kongresu Magiko Nazionala (Terrassa)